

Gure Zirkuko kideek txinparta koloretsua jarri zioten Sagardo Berriaren Egunari

Kronika - Erredakzioa 2025ko urt. 16a, 00:00

Entzun ▶ ▼



'Gure sagardo berria' ohiukatuz eman diote hasiera 2025eko txotx denboraldiari, beste urte betez, Alorrenea sagardotegian. «Murrirtza, baina nortasun haundikoa» omen da sagardoa.

Azken 31 urteetan gertatu den modura, sagardoa izan zen atzo Euskal Herri zabalean protagonista. Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak eta Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, XXXII. Sagardo Berriaren eguna ospatu zuten, eta horrenbestez, atzo eman zitzaion hasiera 2025ko txotx denboraldiari. Eguerdian hasi zen ekitaldia, Erriberan eskainitako prentsaurrekoarekin eta ondoren Gure Zirkuko Iker Galartzak, Lur Aranburuk eta Joseba Usabiagak ireki zuten lehen txotxa 'Gure Sagardo Berria' oihukatuz, Alorrenea sagardotegian. Ikuskizun herrikoia izaten da eskaintzen dutena, eta atzokoan kupel artean hurbildu ziren herritarrengana.

Txotx irekiera orekatuena, indartsuena, arriskutsuena, trebeena eta pozgarriena izan zen, Gure Zirkua izaten den bezala. Gainera, aurtengo sagardoa bera ere orekatua eta indartsua omen dator. «Murrirtza, baina nortasun haundikoa». Erribera ondoan landatu zuten sagarrondoa ere seguru indartsu haziko dela. Mahairen bueltan 2024garren urteko uztarekin eginiko sagardoa dastatzeko aukera izan zuten gonbidatuek, sagardo menuarekin batera, baita bertso sorta ederra entzuteko aukera ere Agin Laburu eta Joanes Illarregiren ahotik.

[Gizartea Astigarraga](#)

Erlazionatuak





Sagardo Berriaren Eguna

Kronika - Erredakzioa urt 15 [Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun ▼



Astigarragako Udalak
laguntza eskatu dio Foru
Aldundia gaur
erabakirikoa da



Ipuin kontaketa bi
saio gaur Lur Kortarekin



Astigarragako Jabetze-
Bolan izenemateko
azken eguna gaur



Santa Barbara Elkartean
urteko ohiko batzarra
egingo da otsailaren
2an

Ikusienak



[Oiartzabalen
eta
Berrondoren
ereserkiak
estreinatu
dituzte](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)



[2025erako
Oporrak
Bakean
kanpaina
aurkeztu berri
dute
Donostian](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)



[Xabat Pagola
nagusitu zen
Tabernetakoan
, buruz
burukoan
Ahetzerekin
kantatuta](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 21 [Hernani](#)



[Santa
Agedako
entsaioak etzi
hasiko dira](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Ereñotzu](#)



[Pentsiodunek
sinadurak
bilduko
dituzte bihar,
ferian](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)



[Asfaltatze
lanak, gaur
Zinkoenean
eta
Agustindarren
plazan](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 22, 00:00 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua

[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)

 [Gipuzkoako Foru Aldundia](#)  [Hernaniko Udala](#)  [Astigarragako Udala](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [AIURRI](#) [ALEA](#) [AMEZTI](#) [ANBOTO](#) [ANTXETA IRRATIA](#) [ATARIA](#) [AZPEITIA GUKA](#) [AZKOITIA GUKA](#)
[BARREN](#) [BEGITU](#) [BERRIKETAN](#) [DROGETEN ITTURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GEURIA](#) [GOIENA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
[GUAIXE](#) [GUKA](#) [GUKA TELEBISTA](#) [HIRUKA](#) [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#) [ORIO GUKA](#) [PLAENTXIA](#)
[TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [ZARAUTZ GUKA](#) [ZUMAIA GUKA](#) [28 KANALA](#)

[Matx](#) [Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)